



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

2012/13 DENBORALDIA

## 25ZK. DUN ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO EMAKUMEZKO KLUBEN EUSKAL KOPA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketa Planean ezarritakoaren arabera, lehiaketa hau antolatuko du, ondorengo arauei jarraiki.

#### **1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Emakumezkoen maila goreneko lehiaketetan hoberen sailkatu direnak.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Hiru Batean txapelketa motan garatuko da. Partidak 20 minututakoak izango dira bakoitza, kronometratuak. honako partida ordenarekin

1 Partida	10.30	BIZKAIA - ARABA
2 Partida	11.30	1 PARTIDAREN GALTZAILEA- GIPUZKOA
3 Partida	12.30	1 PARTIDAREN IRABAZLEA - GIPUZKOA

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arautegian xedatutakoa ezarriko da.

Partida guztiak, nahitaez baloi ofizialarekin lehiatu beharko dira, ASTORE markak areto futbolerako duen modeloarekin.

#### **3. EGUNA ETA LEKUA**

Ekainaren 2an ospatuko da Galdakaoko Urreta Udal Polikiroldegian.

#### **4. ARBITRAJEAK**

AFAEBT-k egingo du epaileen izendapena, Ordainagiriaren ordainketa Areto Futboleko Euskal Batzordearen kontu izango da.

... / ...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

- 2 -

## 5. ZIGORRAK

Lehiaketa honen berezitasunengatik, Ligako zigorrak ez dute efekturik izango bertan, geratuz hurrengo denboraldirako betetzeko geratuz.

Hau guztia klub lehiakideei, Lurralde Federakunde eta Areta Futboleko Arbitroen Euskal Batzordea Teknikoari jakinarazten zaie dagozkion ondoriotarako

2013 ko maiatzak 17, Bilbon

JON ANDER GAMBOA AGUIRRE

Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

## **ARETO – FUTBOLEKO EMAKUMEZKOEN EUSKAL KOPAREN ARAU OROKORRAK, “HIRU BATEAN” IZENENKO SISTEMAREN ARABERA.**

### **JOKALARI KOPURUA**

Talde bakoitzak 12 jokalaririk aurkeztu ahal ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak joko eremuan gutxienez sei jokalaririk izan beharko ditu jokatzeko eskuragarri, taldeko ordezkari batez gainera.

### **KANPORAKETAK**

Lehenengo partidaren kanporaturik jokalaririk oro ezin izango da bigarren partidarako jokalaririk zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

### **BERDINKETAK**

Balazko berdinketak EFF-FVFK indarren duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopurua handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzen arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetarik batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontutan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlee, bigarren partida jokatzeko aldera.

### **BALOIAK**

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

**-O-O-O-O-O-O-O-O-O-**